


Pedagogiako Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

DONOSTIA | SAN SEBASTIAN



VI. MODULUA:

PEDAGOGIA

ESPARRUAK

Moduluko gida

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

■ VI. MODULUAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK	2
■ MATERIAS DEL MODULO VI	2
■ VI. MODULUAREN DIZIPLINARTEKO LANA.....	4
○ NOLA LANTZEN DA DILANa?.....	4
○ EGIN BEHARREKO LANA.....	4
○ DILANari EKARPENA IKASGAI EZBERDINETATIK.....	4
○ DILANa EGITEKO PROZEDURA ETA EGUTEGIA.....	8
■ TUTORETZA	9
■ TXOSTENAREN EGITURA	10
■ EBALUAZIOA.....	11
○ DILAN DOKUMENTUA ENTREGATZEA.....	11
○ NOLA EBALUATZEN DA DILANa?.....	11
○ EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	11
○ DILANaren AURKEZPENA	12

VI. MODULUAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

1. Praktika profesionalaren esparru ezberdinak ezagutzea, hezkuntza-proiektuak, jarduera-planak eta sareak.
2. Ikasketa-trebetasunak garatzea, praktiketako testuinguruetan txertatzeko.
3. Esku-hartzeen estrategia espezifikoak identifikatzea.
4. Esku hartzeko esparruetan egoera espezifikoak ebazteko erabaki arrazoituak hartzea.
5. Gizarteko testuinguru eleaniztunekin eta kultura aniztunekin lotutako pertsonekin eta taldeekin: hezkuntzako esku-hartzeak aztertzea eta planifikatzea.

Ikaskuntza-eraketak gaitasunen arabera

- Praktika profesionalaren esparruak modu kritikoan eta gogoetatsuan aztertzea eta azaltzea.
- Hezkuntza-testuinguruetan erabilitako ikaskuntzako hainbat estrategia eta tresna idatziz erregistratzea.
- Txertatze profesionalaren esparruetan estrategia eta esku hartzeko plan espezifikoak buruzko txosten bat egitea.
- Hezkuntzarako aholkularitza- eta laguntza-proposamenak egitea.

VI MODULUKO IRAKASGAIAK

PEDAGOGIAKO GIDA OROKORRA (PDF)		PEDAGOGIAKO weba	
IKASTURTEA	MODULUA	IRAKASGAIAK	ECTS
3	M6- PEDAGOGIA ESPARRUAK	→ Practicum I	6
		→ Hezkuntza Aholkularitza eta Laguntza	6
		→ Zailtasunak Ikaskuntzan eta Garapenean	6
		→ Pedagogia Laborala eta Formakuntza Enpresan	6
		→ Hizkuntzen Irakaskuntza eta Ikaskuntza	6
		→ Euskararen Arauak eta Erabilera	6
		→ Hezkuntzako Esku-hartzea Testuinguru Eleaniztutan	6
		→ Lanbide eta Lan Orientazioa	6

VI MODULUAREN DIZIPLINARTEKO LANA

○ ¿NOLA LANTZEN DA DILANA?

- DILANa taldeko lana da ikasleek lantaldeak osatzeko askatasuna izango dute.
- Ikasle kopurua taldeko: 3-4
- DILANerako talde-lanaren jarduera irakasgai bakoitzaren ordu kopuru osoaren % 20 izango da. Hau da, 7,5 ordu aurrez aurreko eskoletarako eta 15 ordu eskolaz kanpoko lanetarako, moduluaren irakasgai bakoitzean.
- DILAN talde bakoitzak eginiko lanaren berariazko jarraipena egingo du irakasle-tutore batek. Talde bakoitzari irakasle-tutore bat esleituko zaio. Irakasle-tutore horrek diziplinarteko lanerako argibideak emango dizkio taldeari; lanaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu.
- DILANaren lana eta jarraipena irakasgaien praktika-orduetan egingo da.

○ EGIN BEHARREKO LANA

Lanaren enuntziatua hau da:

“Practicum I irakasgaiaren esperientziatik abiatuta (esperientzia pertsonala edo/eta profesionala), sakondu nahi duzuen esparru pedagogikoa proposatu aukeratutako hautazko irakasgaien ikuspuntutik, eta zerbitzu edo zentro zehatz bat diseinatu, hain zuzen aukeratutako esparruan esku hartuko duena eta zuen ustez practicuma egiteko oso egokia dena”.

Moduluko egiteko nagusia hautatutako esparruko zerbitzu bat edo gehiago ezagutzea, ezagutza eskualdatzea eta diseinatzea da. Sintesi-lan hau Practicum I irakasgaiarekin lotuta dago; ardatz horren inguruan antolatzen dira moduluko hautazko sei irakasgaiak eta horiei buruz garatuko dute ikasleek hainbat gaitasun, hain zuzen ezagutzak eta praktika profesional pedagogikoa eskuratzeko bide emango dienak.

VI. Moduluaren Diziplinarteko Lanaren (VI. DILAN) oinarria idatzizko txosten bat egitea da; txosten hori esparru pedagogiko bati buruzko idatzi deskribatzailea eta justifikatua izango da (taldeko kide batek edo gehiagok ezagutzen dutena, gehienbat practicumetik ezagutua, baina baita esperientzia pertsonaletatik edo profesionaletatik ere). Esparru horretan, esku-hartze pedagogikoak egiten dituzten zenbait zentro edo zerbitzu deskribatuko dira, eta, ikaslearen esperientziatik, ezagutzetatik eta irakasgaien ekarpenetatik abiatuta, esparru horretan esku har dezakeen zerbitzu edo zentro baten proposamena diseinatuko da.

DILANak Practicum I irakasgaiarekin harreman estua duenez, dagokion zentroan edo erakundean praktikak egiteko aldia hasi ondoren (5. astea), talde bakoitzak sakondu nahi duen esparru bat proposatuko du, eta ikasle bakoitzak hautatutako moduluko hautazko lau irakasgairen (sei irakasgaitatik) ezagutzak aplikatzen ahaleginduko da, esparruko ezagutzak sakontzeko asmoz. Lanak 5 zati izango ditu:

1. zatia: *Taldea osatzea eta esparrua zehaztea.* Hasteko, eta I. Practicum irakasgaia hasi ondoren, DILAN taldea osatuko da, eta sakondu nahi den esparru pedagogikoa proposatuko da. Taldeak 3 ikasleek osatuko dituzte gehienez ere. Taldeak zehaztuko du esparrua, eta esparru horren hautaketa justifikatuko du.

2. zatia: *Zentroen eta zerbitzuen deskribapena.* Orrialde batean deskribatuko dira benetan existitzen diren (edo ezagutzen dituzten) eta hautatutako esparruarekin bat datozela uste duten 3 zentro edo zerbitzu. Talde bakoitzak egokientzat jotako eskeman aurkeztuko du informazioa.

3. zatia: *Irakasgaien ekarpenak.* Hautazko irakasgaiak martxan jarri ondoren, talde bakoitzak horien kokapenarekin koadro bat aurkeztuko du, eta irakasgai bakoitzeko orrialde bateko lan bat egingo du; orrialde horretan, irakasgai horretatik hautatuko esparrura egindako ekarpenak jasoko ditu. Irakasgaiak irakasgaia partekatzen duten taldeko ikasle guztiek egingo dute.

4. zatia: Diseinua. Etorkizunean pedagogo lan testuinguruan txertatzeko aukera onenak biltzen dituela uste duten zerbitzu edo zentro pedagogiko bat diseinatuko dute, hautatutako esparruan esku hartuz. Horretarako, aurreko hiru zatietan egindako ekarpenak hartuko dira kontuan. Halaber, graduan egindako ikaskuntzak, esperientzia pertsonalak eta profesionalak eta, bereziki, hautazko irakasgaien ekarpenak hartuko dira aintzat. Zati honek 5 orri izango ditu gehienez, eta talde bakoitzak adostutako eskemaren arabera osatuko da.

5. zatia: Sintesia. DILAN lantzean egindako ikaskuntzen sintesia

○ DILANARI EKARPENA IKASGAI EZBERDINETATIK

DIZIPLINARTEKO lana egiteko lantaldea osatutakoan eta sakondu nahi den esparru pedagogikoa proposatu ondoren, irakasgai bakoitzak proposatutako gidoiari jarraituz deskribatuko da:

• Hezkuntzarako aholkularitza eta laguntza

Hezkuntzarako aholkularitza eta laguntzaren arlo kontzeptualen ekarpenei buruzko sintesi- eta gogoetalarik bat egingo da, hautatutako esparruarekin lotuta, eta, zehazki, diseinatuko den zerbitzuarekin lotuta. Horretarako, hau proposatzen da:

- Aholkularitza-lanak barne hartzen dituen ardatzak profesionalen arteko laguntza-ardatz gisa ikustea.
- Aholkularitza-prozesuetan jarduera-estrategiak aztertzea.
- Aholkularitza- eta laguntza-lanetan garatzen diren rolak ezagutzea.

Talde-lanaren bidez, honako hau egingo da:

- Zerbitzuaren garapenean aholkularitzaren eta laguntzaren ekarpenak zehaztu. Bai diseinu teorikoari dagokionez, bai egin beharreko balizko praktikei dagokienez.
- Aholkularitza-zerbitzua martxan jartzeak erakundearen ondorioak aurkeztu.
- Sortu beharreko zerbitzuan garatzeko arrakastatsua izango direla uste dugun estrategiak proposatu.
- Proposatutako zerbitzuaren diseinu orokorrari ekarpenak sintetizatu.

• Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan

Irakasgai honen bidez irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak sakondu nahi dira, baita norbanako, talde eta erakunde mailan sor daitezkeen zailtasunak ere. Hori guztia jarduera egiten den eboluzio- eta testuinguru-ezaugarriak kontuan hartuta, eta inplikaturako irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak optimizatzea bilatuz. Xede horrekin, honako hau egin nahi da:

- Hautatutako esparruan ezagutza teorikoak eta prozedura-ezagutzak aplikatzea.
- Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen eta horien zailtasunen aurrean planteatutako hezkuntza-premiak eta erantzunak aztertzea.
- Jarduerak prebentzioko eta garapeneko esparruak izatea ardatz, baita irakaskuntza-ikaskuntzako egoerak optimizatzea ere.

Banakako eta taldeko gogoeta-lanaren bidez, honako hau egingo da:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan zailtasun espezifikoak (banakakoak, taldekoak, erakundeetakoak) sortzeko probabilitate gehiago egon daitezkeen egoerak/jarduerak hautatu.
- Garapeneko eta ikaskuntzako zailtasunak antzemateko eta ebaluatzeko erabilitako prozedura zehaztu, eboluzio-etaparen eta hezkuntza mailaren arabera.
- Planteatutako irakaskuntza-ikaskuntzako zailtasunei erantzuteko prebentziorako eta esku hartzeko tresnak proposatu, jarraitu beharreko pausoak eta esperotako prozesuak zehaztuta (norbanako, talde eta erakunde maila).

Hautatutako erakundean edo esparruan, aldi baterako eta etengabeko hezkuntza-premiei erantzutearekin lotuta hartutako akordioak jasotzen diren dokumentu edo/eta komunikazio-bide motak iradoki.

- **Pedagogia laborala eta Formakuntza Empresan**

Irakasgai honetatik, lan munduari pedagogoen ekarpena pentsamendu eta ikuspuntua eman nahi zaio DILANI. Modu honetan, hezkuntza eta formakuntza lanerako alorretan duen garrantzia eta eragina aztertuko

Lanaren zereginetan, hurrengo informazio atalak landu eta aztertuko ditugu:

1. Hezkuntza mundua eta produkzio, enpresario eta lan munduen arteko erlazioak.
2. Gaur egun, Hezkuntza mailan dauden beharrak eta aukerak aztertu, geroko lan baten garapenerako prestatuak
3. Hezkuntza-formakuntza beharren diagnostikoa edota proiektu baten garapena. Irakasgai honen bidez eta DILANarekin bat egiten dituzten gaiak hauek izango lirateke :

- 1) Pedagogoen lan mundua, funtzioak eta irteera profesionalen ibilbidea.
- 2) Hainbat erakunde eta enpresetan pedagogoen lan ardurak eta rolak ezagutzea eta horietan sakontzea.

Hau dela eta, interesgarria da pedagogoen lan profilaren bilakaera eta gaur egungo gizartean izan ditzaketen lan berrien aukerak jakitea. Gaur egungo hezkuntzaren beharrak aztertu eta lan munduarekin duen erlazioa ikuspegi kritiko batetik sakondu nahi da.

- **Irakaskuntza eta hizkuntzen ikaskuntza**

Irakasgai honen bidez, practicum egiteko zerbitzu edo zentro pedagogiko egokia diseinatzean, irakasgai landutako alderdi psikosoziolinguistikoa kontuan har daitezkeen lortu nahi da. Zehatz-mehatz, ikasle taldeak honako alderdi hauei buruz gogoeta egin dezaten nahi da:

- Zer hizkuntza-komunitaterentzat izango da zentroa?
- Zein hizkuntzatan kudeatuko da zentroa? Zergatik?
- Zer erabaki hartu beharko luke zentroak hizkuntzen (ofizialak, ez ofizialak) ahozko eta idatzizko erabilerari dagokionez?
- Zentroko jarduerak zein hizkuntzatan egin beharko lirateke?
- Langileen artean hizkuntza-eskakizunak egongo lirateke? Zein?
- Nola komunikatuko litzateke zentroa hara joandako taldeekin zentroan erabiltzen diren hizkuntzak zein diren ez badakite?

- Egongo litzateke hizkuntzak irakasteko sistemaren bat? Baietz erantzunez gero, zer xede izango luke eta nola antolatuko litzateke?
- Egin beharko litzateke motaren bateko analisi psikolinguistikorik zentroko erabiltzaileei? Baietz erantzunez gero, zer motatakoa eta zertarako?

• Hezkuntzako esku-hartzea testuinguru eleaniztetzan

Ikastetxeko errealitate linguistikoa aztertzea du helburu, ikasleen jatorri linguistikoa kontuan hartuta.

Adin desberdinetako ikasleen eta hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren inguruko hezkuntza-neurriak ikastetxean testuinguruan.

Horrek esku hartzeko arloak oinarritzeko, aztertzeko eta arrazoitzeko premiara gidatzen gaitu, subjektua, eskola, familia eta beste testuinguru soziokultural batzuk kontuan hartuta. Horretarako, garrantzitsua da egoera desberdinak ezagutzea, hain zuzen elebitasunarekin eta eskolan integratzearekin lotutako ikaskuntzei dagokienez; baita hezkuntza eleaniztuneko eta kulturaztuneko ereduak ere, testuinguru eleaniztunean hezkuntzako esku hartzeak antolatzeko, gizarteratzearen, kalitatearen eta berdintasunaren arloko irizpideei jarraituz.

Irakasgaiaren ekarpenaren ardatz nagusia hau izango da: hezkuntzaren arloan proiektu elebidunekin/eleaniztunekin lotutako praktiken gaia.

Hainbat eskola-testuingurutan hizkuntzen arlo pedagogikora aplikatutako esku hartzeko proiektuak aztertuko dira. Hizkuntzak ikasteko, Europako Erreferentzia Markoa erabiliko analisi-tresna gisa, eta ikaskuntza eta hizkuntzen erabilera sustatzen duten hezkuntza-praktikak garatzeko, berriz, esku hartzeko beste baliabide batzuk.

Taldeko lanak eta banakako gogoetak argumentuak emango dituzte arlo pedagogikoan esku hartzen duten dimentsioak ulertzeko, honako hauetatik abiatuta:

- Iturri teorikoak.
- Praktika-ereduen eta egindako analisien deskribapena.
- Esku-hartze pedagogikorako hobetzeko proposamenak

• Lanbide eta lan orientazioa

Irakasgai honetan, eduki teorikoak eta praktikoak landuko ditugu lanbide- eta lan-orientazioaren arloan sakontzeko, lanbide-orientazioko teoriak ezagutzearen bidez; halaber, karrerarako garapena sakonduko du, eta praktikan jarriko du, analisiaren bidez, gaur egun garatzen diren orientazio profesionaleko programak (bai hezkuntza formalean bai ez-formalean garatzen direnak).

Irakasgai honek DILANari egiten dizkion ekarpenak hauek dira:

1. Ikaslea testuinguruan kokatzea lanbide- eta lan-orientazioaren arloan, programa praktikoak aztertuz.
2. DILANean garatu beharreko zerbitzua egiteko eta testuinguruan kokatzeko ezagutza teorikoak ematea.
3. Talde-lana eta "lantaldearen" kudeaketa sustatzea DILANa egitean kontuan hartu beharreko esku hartzeko oinarritzeko tresna gisa.
4. DILANean garatu beharreko informazioa bilatzeko eta hautatzeko gaitasunak praktikan jartzea.

• **Pedagogiako Practicum I**

Pedagogiako Practicum I irakasgaiak ikasleen prestakuntza osoari laguntzen dio, unibertsitateko ikasketak jarduera profesionalera hurbilduz eta testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa bat sustatuz. Praktiken bidez, ikaslea ziur asko bere jarduera profesionala izango dena hurbiltzen da, eta hasierako kontaktua egiten du.

Zenbait zentrotan banaka egin beharreko praktikez gainera, taldeko lan bat egin beharko da, eta lan horretan hau egin beharko da:

- Praktiketako zentroaren testuinguru orokorra aurkeztu.
- Zentroaren xede diren esparru soziokulturala eta biztanleria mota identifikatu.
- Programa diseinatu; helburuak, lanen arduraldia eta funtzioak barne hartuta.
- Langileen erantzukizun mailak zehaztu.
- Zentroko premiak identifikatu: metodologia, estrategiak eta baliabideak.
- Programaren ebaluazio-plana diseinatu.

○ **VI. DILANA EGITEKO PROZEDURA ETA EGUTEGIA**

DILANerako lantaldea osatu ondoren, taldeak arlo pedagogiko bat hautatuko du; ondoren, arlo hori deskribatu eta aztertu egingo du, eta proposamen bat egingo du. Azterketa-deskribapenaren eta lanketaren zeregina DILANA egiteko proposatutako irakasgai bakoitzeko jardueretatik abiatuta egingo da, eta horretarako izendatutako irakasle tutore batek lanari buruzko orientazioa eskainiko du, eta haren jarraipena egingo du.

ASTEA	GELAKO LANA	BERTARATU GABEKO LANA	EMAITZA
16	DILANaren aurkezpen orokorra. Moduluaren koordinatzailea.		DILANaren koadernoa.
17	DILANA aurkeztea irakasgai bakoitzean.		
18	Taldea osatzea. Kideen gehieneko kopurua: 3/4 DILANareb xede arloa hautatzea.		Taldeko kideen fitxa. Arla definitzea.
19		Tutorea esleitzea.	
20		Hiru zentroak eta eskaini beharreko zerbitzuak zehaztea.	
21		Hautatutako arloari dagozkion benetako hiru zerbitzu deskribatzea.	Hiru deskribapenak aurkeztea tutoreari.
22		Hautazkoen parte hartzearen koadroa egitea.	Hautazkoen koadroa aurkeztea tutoreari
23	DILANari hautazkoek egindako ekarpenei buruzko lehenengo hurbilketa.		
24		Proposatu behar den zerbitzuaren definizioa	
25		Taldearen proposamenean aurrera egitea.	

26	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	DILANaren zirriborroa aurkeztea tutoreari
27		Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
28	DILANari hautazkoek egindako ekarpenak berrikustea.	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
29	DILAN lana "pdf" formatuan entregatzea.		DILAN txostena.
30	DILANaren aurkezpen publikoa.		

EGUTEGIA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
16	Urtarrilak 20	21	22 Aurkezpena orokorra	23	24
17	Urtarrilak 27	28	29	30	31
18	Otsailak 3	4	5	6	7
19	Otsailak 10	11	12	13	14
20	Otsailak 17	18	19	20	21
21	Otsailak 24	25	26	27	28
822	Martxoak 2	3	4	5	6
23	Martxoak 9	10	11	12	13
24	Martxoak 16	17	18	19	20
25	Martxoak 23	24	25	26	27
26	Martxoak 30	31	1	2	3
27	Apirilak 6	7	8	9	10
Udaberriko oporrak: apirilak 9tik Apirilak 19ra					
28	Apirilak 20	21	22	23	24
29	Apirilak 27	28	29	30	1
30	Maiatzak 4	5	6	7 Ikasleen aurkezpena	8

*markatutako egunetan irakasgai bakoitzari dagokion saio praktikoan DILANa landuko da.

- **Urtarrilak 22:** DILANaren aurkezpen orokorra (Moduluko koordinatzaileak, Jon Berastegi)
- **Otsailak 3:** Taldeko kideen fitxa eta Arloa definitzea.
Nori aurkeztu: Moduluko koordinatzaileari.
- **Otsailak 17:** Iragarki tauloian taldeei esleitutako tutore zerrenda ipiniko da.
- **Martxoak 2:** Hautazkoen koadroa aurkeztea tutoreari
- **Martxoak 16:** Hiru deskribapenak aurkeztea tutoreari.
- **Apirilak 20:** DILANaren zirriborroa aurkeztea tutoreari
- **Apirilak 30:** DILANaren txostena (pdf.) aurkeztea tutoreari.
- **Maiatzak 7:** Ikasleen aurkezpena.

TUTORETZA

Talde bakoitzak bere tutorea izango du. Aipatutako egutegiaren arabera antolatuko dute lana. Halaber, gainerako ikaskideen artean DILAN bakoitzak lortutako kalifikazioak jasotzeaz, argitaratzeaz eta banatzeaz arduratuko dira.

■ TXOSTENAREN EGITURA

DILANaren amaierako txostenak 17-20 orri izango ditu, eta atal hauek edukiko ditu:

- Azala. Honako hauek agertuko dira (or. 1):
 - Lanaren izenburua.
 - Taldekideen izen-abizenak, ordena alfabetikoaren arabera.
 - Tutorearen izena.
 - Lana entregatzen den eguneko data.
 - Ikasten ari diren gradua: Pedagogiako Gradua.
 - Modulu zenbakia: VI. modula.
- Aurkibidea, atal bakoitza zer orrialdetan dagoen adieraziz. (or. 1)
- Lanaren sarrera, hautatutako arlo pedagogikoak testuinguruan kokatuz; hautaketaren arrazoiak (arlo pedagogikoarenak). (or. 1)
- "Benetako" hiru zerbitzuren deskribapena. (or. 3)
- Hautazkoen koadroa. (or. 1)
- Irakasgaiek egindako ekarpenen deskribapena: Practicum + hautazkoak. (Irakasgai bakoitzeko or. 1)
- Taldearen zerbitzuaren proposamena. (or. 5)
- DILANaren ikaskuntzen sintesia (autoebaluazioa). (or. 1)
- Erabilitako bibliografia edo/eta webgrafia. (or. 1)
- Taldeko saioen akten laburpen-taula.

Aurkezpen-arauak:

- Marjinak: 2,5 behekoa, goikoa, ezkerrekoa eta eskuinekoa. Lerroarte: arrunta.
- Letra tipoa: arial 12
- Bibliografia eta webgrafia APAREN arauen arabera.

■ EBALUAZIOA

○ DILAN DOKUMENTUA ENTREGATZEA

2020ko **apirilaren 30rako** talde guztiek bidali beharko diote dagokion tutoreari DILAN posta elektronikoz, "pdf" formatuan; era berean, tutorea lana VI. moduluko irakasle guztiei bidaltzeaz arduratuko da, baita praktiketako tutoreari ere.

○ ¿NOLA EBALUATZEN DA DILANA?

1. DILANA prestakuntzako alde zuzeneko baldintza da, Graduaren araudi orokorra kontuan hartuta DILANak ebaluazioan duen garrantziari dagokionez.
2. DILANaren nota taldekoa izango da, eta lauhilekoko azken eskola-egunean argitaratuko da dagokion oholean.
3. DILANaren nota VI. moduluko irakasgai bakoitzaren % 20 izango da, baita practicum irakasgaiarena ere. Hau da, DILANaren taldeko lanak gehienez ere 2 puntuko kalifikazioa lortuko du irakasgai bakoitzean: % 75 egindako dokumentuagatik eta % 25 gelan aurkezteagatik.
4. DILANA adierazitako datetan entregatu eta aurkeztu beharko da.
5. Dokumentu idatzia eta aurkezpena ebaluatuko dira.
6. DILANaren azken kalifikazioa "ez aurkeztua" edo 0 eta 2 arteko kalifikazioa izan daiteke.
7. Ebaluazio-irizpideek moduluko gaitasunen garapenari erantzun behar diote.
8. Baliteke DILANA gainditzea eta irakasgaiaren bat gainditu gabe geratzea.
9. DILANA entregatu ezean, ez da kalifikaziorik lortuko irakasgaietan.

○ EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Egokitasuna: txostenaren edukia aztergai osorik eta modu koherentean eta osotasunean azalduko du. Hala, txostenaren irakurketa aztergai eragindako hasierako galderaren ondo landutako erantzuna izango da.
- Praktika profesionalaren esparruak modu kritikoan eta gogoetatsuan aztertzea.
- Hautatutako esparruan garatutako programak, planak, baliabideak, estrategiak eta abar deskribatzea.
- Informazioa antolatzea. Emandako informazioak ondo antolatuta egon behar du, dokumentu honetan adierazitako egiturari jarraituz.
- Proposamena txertatzea eta justifikatzea. Moduluan egindako irakasgaietako ikaskuntzetatik abiatuta eraikitako ekarpenak barne hartu beharko ditu.
- Idatzia adierazgarria eta zuzena izango da alderdi formalari dagokionez (ortografia, aipuak, bibliografia-erreferentziak...) baita testuaren kohesioari eta koherentziari dagokionez ere.
- Autoebaluazioa. Autoebaluazioan, ikaskuntza-prozesuari berari nahiz hobetzeko lortutako ondorioei buruz egindako gogoeten kalitatea balioetsiko da.
- Azken ebaluazioak gai bakoitzari dagokion alderdiaren oniritzia izan behar du.

○ DILANAREN AURKEZPENA

DILANA **maiatzaren 7an aurkeztuko** da. Talde guztiek ikasgelan aurkeztu beharko dute DILANA; horretarako, talde bakoitzak 15 minutu izango ditu gutxi gorabehera. Aurkezpen horretara talde guztiek eta taldekide guztiek joan beharko dute.

Aparteko zeinahi egoera epaimahaiak aztertuko du. Taldeko kide bakoitzak gai izan beharko du DILANaren edozein zati aurkezteko eta defendatzeko.

Aurkezpena egiteko ordua eta lekua behar besteko aurrerapenarekin argitaratuko da. Egun horretan, ohiko eskolak bertan behera geratuko dira.

Aurkezpenean gutxienez bi ebaluatzaile egongo dira:

- a. Tutorea.

- b. Aurkeztuko den DILANaren esparrua ezagutzen duen irakasle bat.

Moduluko irakasle guztiak gonbidatuko dira defentsara.

Honako hauek egindako dokumentua: Jon Altuna, Rakel del Frago, Lorena Revuelta, Rosa Arburua, Jon Berastegui, Iñaki Pikabea.